



Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



| | | |
|--|--|-----|
| abagune aukera, egokiera | ...apur bat zapuztuta zegoen Fonsecarengandik espero zuen sintzeritatearen ondorioz. Ez zion lagunari galdera itzultzeko abagunerik eman. | 95 |
| abian ipini martxan ipini | ...ausaz aukeratutako disko bat abian ipintzen zuen bizkitartean. | 136 |
| adikune begirada zorrotza, atentzioa | Adikunea sabaiaz haratagoko jopuntu batean finkatuta segundo batzuk igaro eta gero, soluzioa aurkitu izanaren aurpegiera egin zuen. | 41 |
| afera arazoa | Tabako kontrabandoa zuzentzen zuena eta neu agindupeko neukana Mentxu huen, asteotako afera honetan ere neu libre uztea lortu duen pertsona bera. | 75 |
| afixa kartela | Gimnasioak berak horrelako oparia egiten zuenean, afixetan agertzeko moduko debuta gertu zegoela adierazten zuen. | 61 |
| aipua aipamena | Atoiontziazen jabea zen Pedriño Bermejoren aipua egitean, belarri parera altxatu zituen esku biak, erruak kitatze aldera. | 12 |
| akituta nekatuta, indarra galduta | Burumakur eta pausokera geldoan zebilen, aldatsagatik baino adorea akituta . | 163 |
| alaena halakoa, madarikatua | Mukitsu alaenak jadetsi zuen nerbioen dantzan leher zekion, eta arao etsitu batez jesarri zen (...) argazki erraldoiaren azpian zegoen aulkian. | 68 |
| alanbike destilagailua | Alanbikea , su txikiak, metalezko eta beirazko ontzi eta lanabesak edonon. | 21 |
| albait -en ahalik eta ...en, oso-oso | Ni saiatu naiz deiadarrrik ez egiten, albait lasaien egoten... | 34 |
| aldamenean alboan, ondoan | — (...) Gezurra dirudi, Santos, egun osoa pasatzen duzu polizien fantasmak ikusten, eta batzuetan zure aldamenean dagozenezan igarri ere ez. | 145 |
| aldarri batean oihuka, orroka | Korridorera heldu eta berehala aldarri batean hasi zen Mentxu, «Antonia! Non sartu zara, demonio...». | 68 |
| aldats aldapa, malda | Tranbia Arriagarako aldats behean zihuan eta balaztatu behararen durundiak iragarri zion bidaiaren amaiera aurreko unea. | 47 |
| aletu banan-banan pasatu, xehetu | Minutu batzuk lehenago, leihotik begira aletu zituen zigarroa erre bitarteko begirakuneak eta hausnarketak. | 29 |
| algara barre zantzoa, ozena | Hurrengoan erosiez ikazkidazu kulero batzuk Lopezen mertzerian, gura baduzu – eta algara egin zuten biek. | 26 |
| alogera alokairua (erabilera prezioa) | Film bakoitzaren alogerarekin bost kartel bidaltzen zituen banatzaileak... | 84 |
| alproja inutila, nagia, alferrontzia | Badakik zer jasotzen den meatzetan dabilen alproja bat tuberkulosiak edo silikosiak jota gaixotzen denean? | 132 |
| ameto eman onartu, ontzat eman | Edateko txakolina hitzartu zuten aho batez, Luigiren gomendioari ameto emanda . | 139 |
| amiñi bat pixka bat, piti bat | Mentxuk amiñi bat alboratu zuen eskuarteko albuma, gatearen begirada definigaitza noranzkoa ote zen jakitearren. | 170 |
| amultsuki maiteki, maitekiro, adeitsuki, xal | Lurrean amultsuki laga zuen kamera, matzuratuko ote zen beldurrez. | 107 |
| amultsuki maiteki | Lurrean amultsuki laga zuen kamera, matzuratuko ote zuen beldurrez. | 130 |
| amuzki beita, amuan ipintzen dena | ...itsasontzi bidezko kontrabandoa emango zuen zerbait, txakurrek gezurretako amuzkiari heldu ziezaioten. | 102 |
| andana mordoa | ...gurago izan zuen (...) hedatu arte egon, Luigiren lepora salto egin eta musu labur andana batez eskerrak eman aurretik, | 84 |
| antiojo betaurrekoak | Lente koxkor eta biribileko antiojoak zeramatzan gizon bat zegoen idazmahaiaren atzean, ile dirdaitsua atzerantz trinkatua zeukana... | 103 |
| antxintxika arineketa, arrapaladan | Eskaileratik gorako pausu gogorren hotsa entzun zuen, antxintxika zetorren Antoniaren “Mentxu, Mentxu...!” orroekin batera. | 68 |



| | | |
|--|---|-----|
| apetatsu desiragarria, kapritxozkoa | Bizitzako proiektu apetatsuenari dedikatzen zizkion ahal zituen egun guztiak: fraide beneditarren mendeko tradizioa ikertu, sailkatu eta argitaratzea. | 46 |
| apo-apoan nekez, kostata | ...sona handiko edatunetakoa zela herrian eta apo-apoan agertzen zela bazterrotatik inork birritan deitu barik. | 5 |
| arao biraoa, amorruzko hitz gordina | Mukitsu alaeak jadetsi zuen nerbioen dantzan leher zekion, eta arao etsitu batez jesarri zen (...) argazki erraldoiaren azpian zegoen aulkian. | 68 |
| arasa apala | Jangelako arasan zegoen ispilu handiaren aurrean pararazi zuen zeukan piura mirets zezan... | 131 |
| ardurabako ardura gabeko | Ardurabako purrustada ahoskatu zuen erantzun legez. | 163 |
| arerio etsaia, aurkaria | Txandaka irudikatzen zituen balizko arerioaren gorputz atalak zaku zigortuan, hara hor eskumako masailean krotxeta, to oraingoan ezker gantxo... | 59 |
| arpegio akorde | Arpegio batzuk markatu zituen atzamarrekin mahaiaren ertzean, Santos itzuli arte. | 16 |
| arrago metalak urtzeko ontzia | Oraindik isurki apur batez hornituak ziren arragoak zeuden hoditeria guztiaren oinean. | 177 |
| arrapostu erantzuna, ihardespina | Ezezkoa jaso zuen arrapostua , eta gainera, ez zuela uste laster batean etortzekoa zenik... | 124 |
| artegak urduritasunak, egonezinak | Treneko txartela blusako faltriketari zuten oraindik Mentxuk, eskuen artegak ordurako aski zimurtuta baina. | 44 |
| artzapez arzipreste | Txopitea artzapezak pulpitutik espreski sermoia egin zuen kristauek galarazita zutela zentsurak 4R sailkatutako film hira ikustera joatea. | 85 |
| asebeteko ase artekoa | Plazara heldutakoan asebeteko ur-saioa egin zuen iturrian, eta bertako petrilean atsedean hartuta erreparatu zituen eman beharreko hurrengo pausoak. | 102 |
| astia denbora | Nik oraindik badauzkat gauza bi lotzeko, baina oraindik badugu astia . | 162 |
| ataka estualdia, trantzea | ...baina negozioburuaren azkartasunak salbatu ninduen ataka larriagoetatik. | 75 |
| atarate ataria | Kristal hotsa entzun zen atarate aldetik... | 149 |
| ataurrera atarira | —Hemen, behintzat, Falangekoak ez ziren ataurrera etorri Cara al Solekin eta protestekin, beste leku batzuetan legez. | 86 |
| ateri euri gabeko tartea | Euri tantek hots musikari batez kolpatzen zuten estalkiaren sabaia, eta Areetako kaia zapaldu zuelarik ateria zuten. | 144 |
| atezuan larrituta, erne | Arerioaren lur jotze azkarra eragingo zuen kolpe zitalaren atezuan zebiltzan denak, ikusleak zen boxeolariak. | 154 |
| atoiontzi ontzi mota, erremolkadorea | —Ea hire aita zoro horrek zer gertatu digun gaurko. Ez zaizkidak ordu ilunetako ibilerak gustatzen. — Atoiontzian dago zure zain. | 10 |
| atondu ordenatu, antolatu | Ez zen halakorik jazo. «Antonia!» deiadar eginda bigarren solairutik hartu zuen erantzuna, bezeroen gelak atontzen egongo zen. | 50 |
| atzamarka atximurka, piltxikada | Gizona, aldiz, isilik zegoen sudurraren alboetan atzamarka . | 163 |
| atzeneko azkenekoa | —Espero dut ez zarela atzeneko etekinez ariko, sosaz gaizki gabilta aspaldion eta. | 78 |
| ausaz alirizira, abespeluan | ...bizkarra emanda hasi zen berbetan, ausaz aukeratutako disko bat abian ipintzen bizkitartean. | 137 |
| azkartasun arin ibiltzea, zuhur ibiltzea | ...baina negozioburuaren azkartasunak salbatu ninduen ataka larriagoetatik. | 75 |
| aztoratu asaldatu, kezkatu, larritu | Hainbeste maite zituen tartekako isiluneek nabarmen aztoratu zuten mutikoa. | 11 |



| | | |
|---|---|-----|
| aztura ohitura, ekandua | Zigarro bat erretzeko jorana sentitu zuen baina jendaurrean halakorik ez egiteko aztura , usadioetan aski sakon finkatutakoa, nagusitu egin zitzaion... | 98 |
| babu papaua, kokoloa | —Ez pentsa babua naizenik, Mentxu. Badakit aita lehengo egunekoagatik atxilotu zutela. Neu ere han izan nintzen, ahaztu zaizu? | 65 |
| balego legez balego bezala, balego moduan | Konpainia beharrean balego legez, piano aurreko aulkitxoan atsedean hartzera gonbidatu zuen Antonia... | 197 |
| balizko ustezkoa, litekeena | Txandaka irudikatzen zituen balizko arerioaren gorputz atalak zaku zigortuan, hara hor eskumako masailean krotxeta, to oraingoan ezker gantxoa... | 60 |
| barreiatu sakabanatu | Lurrean barreiatutako tabako-izpiak jasotzen hasi zen baina poltsatxoa baino ez zuen mahai gainera ekarri. | 71 |
| batela potina, itsasontzitarra | —Hurrengoan, Joselu, txalupan bertan itxaron egik batelean makurtu zen Mentxu, mutikoak arraunei eutsi bitartean—, ez hazatela ikus agerian... | 10 |
| begiramen konsiderazioa, errespetuzko jok | Izugarri laket zitzaion Antoniaren begiramena . | 16 |
| begitandu iruditu | Jeloskor sentitu zen apur batez, mutikoak aitaren gerriari ordubete lehenago bereari baino estuago oratzen ziola begitandu zitzaionez. | 146 |
| bekoz beko aurrez aurre, buruz buru | ...atea erdi zabaldu zuelarik, jiratu eta bekoz beko ipini zitzaion Luigiri. | 89 |
| belutu berandutu | —Beno, neurea ez da presazkoa, belutu egin zait eta badauzkat gaur derrigor egin beharreko beste erosketak bi. Bihar goizean etorriko naiz... | 77 |
| beneragarri agurgarria | Luigik oihu egin zien beste mailako agure beneragarri ... | 57 |
| berba egin hitz egin | Bilboko saioan Joselu finalera ailegatzea lortu behar duzu, eta horretarako gimnasioko entrenatzailearekin berba egin . | 163 |
| berbakera hizkera modua | «Ikusi behar zenuen, Antonia, zelako berbakera daukan Asenjo horrek. Enbaxadore batekin ari balira ere ez zuketean leunago tratatuko. | 48 |
| berbaldia hitzaldia, solasaldia | Hortik aurrera ez zen berbaldia asko luzatu. | 167 |
| berna zango, hanka | ...bidean gehienez sereno birekin topo egingo zuela kalkulatu zuen, ile-mataza osoa jasoko zion bisera, fieltrozkoa, bernaren kontra kolpatzen zuen bitartean. | 4 |
| beta astia, denbora | Etiketen tamaina txikiko hizkiak irakurtzeko ere beta hartzen zuen aldizka. | 10 |
| betondo begi-ingurua, betazpia | Betondo bat ubeltzen hasia ikusi zion Mentxuk, eta beheko ezpaina apur bat pitzatuta. | 202 |
| biharamun hurrengo eguna | Kaka beste halangoari eta desenkusa apalez batera, biharamunean ekarriko ziola agindu zion, larregi lotsagorritu barik. | 88 |
| biribilkatu enroilatu | Toalla sorbalda gainetik biribilkatu zionean zizpuru egin zuen Joseluk, egun hartakoak burura egin zuelako seinale ezaguna eskertuz. | 165 |
| bitsadera apar-burruntzalia | Kafea kikaratan ipini, eta bitsaderaz plateretu zituen arrautzak eta enparauak Mentxuk. | 37 |
| bizkitartean bitartean | Bizkarra emanda hasi zen berbetan, ausaz aukeratutako disko bat abian ipintzen zuen bizkitartean . | 112 |
| branka itsasontziaren aurreko aldea | Kai inguruko buiak, sokak eta ontziak atzean utziak zituzten aspalditik, baina Joseluk etengabe jiratzen zuen burua branka aldera. | 11 |
| buia itsasoko baliza | Kai inguruko buia k, sokak eta ontziak atzean utziak zituzten aspalditik... | 7 |
| burko almohada | Burko akoltxatuaren zirrikietatik ezpainak gailentzen zitzaizkion nabarmen, eta hortz-haginetako babesgailua zerabilen kanpora eta barrura. | 165 |
| burlaize iseka edo trufa keinua | ...apur bat makurtu zen Joselu (...) baina burlaize txiki batez lagunduta, prestatuta zeukan sententzia biribila adierzateko legez mintzatu zitzaion. | 65 |



| | | |
|--|---|-----|
| burrunbatsu zaratatsua | Ekaitz burrunbatsuetako gauek eragiten zioten barealdian zegoen Mentxu... | 29 |
| burua txistuka ibili fantasiatan eduki, txoriburu izan | Mukitsu bat da oraindik, hainbeste boxeo eta istoriorekin burua txistuka dabilkio ... | 163 |
| daborduko jada, jadanik, dagoeneko | Pozten naiz, daborduko abisatua egongo dela pentsatzen dut eta. | 79 |
| danba kolpe edo tiro ozen bat | Ateko danbek eten zioten joaldia eta gogoeta. | 24 |
| dangada ura (zerbait) edateko, tragoa | Mentxuren isiluneak dangada eskaintzaren aurreko gaira itzuli eragin zion solaskideari. | 43 |
| defuntu hildakoa | Eta bestea, Azken Portuko ustezko defuntua izan dela Joselu nahasten ibili dena. | 173 |
| desenkusa aitzakia, estakurua | Azken minutuetan aurrera eta atzera begiratzen egondako andreak tupustean jaurti zuen desenkusa ... | 77 |
| desenkusa aitzakia, eskusa | Kaka beste halangoari eta desenkusa apalez batera, biharamunean ekarriko ziola agindu zion, larregi lotsagorritu barik. | 88 |
| dingilizka zintzilik, eskegita, dilindan | Dingilizka zegoen letrerotxoarekin olgetan ari zen Mentxu, ateko kristaletik begira bitartean "cerrado" eta "abierto" jirabiraka tartekatuz. | 18 |
| diosala agurra | Agurra ere ez zirudien buru-jasoaldi batez Santosek diosala itzuli zion. | 115 |
| durduzarazle nahasmen eragilea, perturbadore | ...gizon mehar haren hezurdurek, hanketakoek nahiz besoetakoek osatzen zuten erliebe durduzarazlea , hezurak eta narruazala ia giharrik gabe... | 105 |
| durundi oihartzuna | Tranbia Arriagarako aldats beheran zihuan eta balaztatu beharraren durundiak iragarri zion bidaiaren amaiera aurreko uea. | 47 |
| edatun zurrutaria | ...sona handiko edatunetakoa zela herrian eta apo-apoan agertzen zela bazterrotatik inork birritan deitu barik. | 5 |
| egurats atmosfera | Mediterranioko argiak luzaz gozatu izanak areagotu egiten zion egurats gandutuaren zama, bazterralde lausotuarekiko tristura. | 6 |
| eite itxura, antza, tankera | Ez dakit, gizonduago bezala ematen du, eite serioagoa erabiltzen duela iruditzen zait. | 100 |
| ele-eder hizlari bikaina | ...hizlari ele-eder batek herriko giro mistikoa loriatu behar zuela. | 87 |
| enkontru topaketa | Ezezagunaren presentziaz beste eginez ekin zion Mentxuk enkontruari , eta haren aurpegira begiradarik zuzendu ez zuen legez, haren berbek ere... | 14 |
| enparauak gainerakoak, besteak | Kafea kikaretan ipini, eta bitsaderaz plateretu zituen arrautzak eta enparauak Mentxuk. | 37 |
| eranskin komentario gehitua, erantsia | Maria zapataginaren eranskinak zer oroitua eman zion Mentxuri, Farmaziako ikaslea zenean zenbat arratsalde luze eta gozo pasatu zituen... | 54 |
| erauntsi denboralea, ekaitza | Haize erauntsiek kaleko harlauzen gainera jaurtikitako ur parrastek errekatxo lasterrak sortzen zituzten espaloi bazterretan estolda bila... | 29 |
| erauzi indarrez atera | Iragarkiak pasearazten zituen gizonak berak Roselliniren film batetik erauzitako figurantea ematen zuen... | 85 |
| erdu zatoz | Ongi etorria zara beti, Eusebia. Erdu barrura. | 146 |
| erne adi | Emakumeak erne segitzen zuen... | 163 |
| erpuru atzamar edo hatz lodia | andre biek jostun lanabesak zituzten eskuartean, artaziak, hasi-jostorrazak eta titareak erpuruetan . | 148 |
| errai tripa barrena, sabel barrua | Joseluk bere grina osoa zaku eskegiaren erraietan eta minutu bakarrean hustu behar zituela ziruedien. | 59 |



| | | |
|--|---|-----|
| erratz ginarra, zorua garbitzekoa | Artean diskoa amaituta zegoen, eta ur txorrotadaz baldea bete eta erratzaz lurra igurzten aditu zezakeen hormaz bestaldetik. | 195 |
| erregu mesedeka eskatzea | Mentxuk sentitu zuen beharbada ez ziola kontsolamendu nahikorik eman, edo behintzat hori adierazten zutela haren begi erregugileek . | 34 |
| erripa aldapa, aldatza | Sorbaldan berriz zamatuta ekin zion atzealdeko erripan gora. | 200 |
| esames txutxu-mutxua, berriketa | ...osterantzeko guztiei "nire senarra" azpimarratu ohi zien (...) etxe berean emakume bi eta gizon bakarra bizitzeak (...) sor zitezakeen esamesak itozteko. | 14 |
| eskuturra gora eskumuturra jasota | ...eskua eskaini zion eskuturra gora , gizonak maite zuen estiloan musukatu ahal zezan. | 81 |
| estakuru aitzakia | Besarkada luze baten estakurua hautsiz Fonseca bot metro gorako letrorerantz egin zuen atzamarrez... | 92 |
| estolda isurbidea, hodia | Haize erauntsiek kaleko harlauzen gainera jaurtikitako ur parrastek errekatxo lasterrak sortzen zituzten espaloi bazterretan estolda bila... | 29 |
| estraperlo merkatu beltzekoa | ...esan nitzun Margarenean zenbatgura arroz aurki dezakezula estraperloan , esaiozu gaixotasunagatik dela (...) ea apur bat merkeagoa egiten dizun. | 76 |
| etsian lur jota | Kafesnea eskuan hartuta lagunaren mahaira hurbildu, etsian agurtu zuen arratsaldean... | 56 |
| ezarian astiro, emeki | ...eta ezarian irakurri zituen erreportai luze bi, bata delinkuentziak Ingalaterran jasandako gorakada demasiari buruz... | 20 |
| faltrikera patrika, poltsikoa, sakela | Erlojua kendu zion Santosi faltrikeratik . Makurtu egin behar izan zuen ordua ikusteko, katea laburregia zuen. | 9 |
| fardel paketea, maleta | Alde egiteko presa zeukala gaztigatu zion osagileak, eta fardela mahai gainean utzita, bak santua. | 104 |
| ferekatu leunki, emeki ukitu edo laztandu | Mahai gainetik eskua ferekatu zion Mentxuk. | 143 |
| foxtrot dantza mota | Gero eta maiteago zuen Mentxuk piano haiek edukitzen zuten afinitate puntu doia. Ipurmasailez jauzitxoak eginez foxtrot bati ekin zion egun hartan Luigik. | 88 |
| gaban berokia | Gabanaren botoiak katean askatu ondoren bisera kendu zuen, eta ile-sapa beltzarana bizkarrean behera haizatu. | 7 |
| gaitz (gatxa), zaila | Bazekien Mentxuk zein gaitza zen poster haiek lortzea, eta horrek are itzelagotzen zuen sorpresa. | 84 |
| gakotu tinkatuta | —Hitzordua ipini eta gero damutu zitzaidan, ez pentsa —atzamar potoloak txalekoko faltrikeretan gakotuta zeuzkan Luigiri begiratu zion... | 168 |
| galarazita debekatuta | Txopitea artzapezak pulpitutik espreski sermoia egin zuen kristauek galarazita zutela zentsurak 4R sailkatutako film hura ikustera joatea. | 86 |
| gandutu laino mehekoa | Mediterranioko argiak luzaz gozatu izanak areagotu egiten zion egurats gandutuaren zama, bazterralde lausotuarekiko tristura. | 6 |
| gaztigatu abisatu, ohartarazi, ohartu | Alde egiteko presa zeukala gaztigatu zion osagileak. Eta fardela mahai gainean utzita, bake santua. | 87 |
| gerizpean erabili itzalpean, kartzelan eduki | —Zer kontatzen duzu, zaharra? Zer moduz erabili zaituzte gerizpean ? | 77 |
| gertatu antolatu, prestatu | —Ea hire aita zoro horrek zer gertatu digun gaurko. Ez zaizkidak ordu ilunetako ibilerak gustatzen. — Atoiontzian dago zure zain. | 10 |
| gilbor zilbota, sabel aldea | “Hirekin topatzearen perspektibak bigundu zidan gilborra . Ez gauden oraindino erabat fosilizaturik”... | 97 |
| gomita egin gonbidatu | Aurkezpenen ostean espaloian abiatzeko gomita egin zuen Rafak eskuaz, besteei bidea erakusteko legez. | 168 |
| gotor sendoa, irmoa | Bestearen beso gotorretan egin zuen. | 159 |



| | | |
|---|---|-----|
| guran nahian | Susmo aski ziurra daukat hori edo bere inguruko norbait txakurren aginduetara ibili dela Joselu gure kontra nahastu guran . | 163 |
| gusturen oso-oso gustura | Pareta hauen artean ibiltzen naiz ni gusturen . | 162 |
| harlauza harri zabal | Haize erauntsiek kaleko harlauzen gainera jaurtikitako ur parrastek errekatxo lasterrak sortzen zituzten espaloi bazterretan estolda bila... | 29 |
| hasperen egin arnasbehera, suspiroa | Gerrikoaren botoia askatu zuen Mentxuk. Hasperen egin zuen. | 14 |
| hautu aukera | Edukiaren bolumen larregizkoaz itxuraldatuta zegoen kartazala eta horrexen aldeko hautua egin zuen morroiak. | 166 |
| haztatu ukituz sentitu | Lepa-uztaiak atzamarrez tinkatuz ekin zion eta oinaze-isei erreparaturik sorbaldatik behera poliki haztatuz joan zen gerrigainetaraino. | 25 |
| herrena hankako akatsa, laburrago | Ibiltzerakoan eskuaz laguntzen zion ezkerreko hankari, ia nabaritu ere egiten ez zen herrena gutxiagotzeko. | 12 |
| hieratiko zurruna, hertsia | Ispilu batean bere burua imintzioka ikusi izan balu legez, jarkera hieratikora itzuli zen Mentxu. | 113 |
| hizpide hizketa gaia | Joselu zen bere urtemuga festako errege, besteek horretarako bide emanda, eta jokatzekoa zen boxeo borroka beste hizpiderik ez zeukan. | 157 |
| hutsal baliarik eza, baliogabea | ...galderaren hutsala nabarmentzeko hormako erlojuaren orratzak irakurri zituen zeharrez. | 139 |
| imintzio keinua | Disimuluan huts egindako gaitz-ulertuaren imintzioa zirriboratu zitzaion Joseluri opariaren zertzeladak ikusi zituenean. | 160 |
| intzirika atsekabezko kexada, suspiroka | Inaxiri igurtzalditxo batzuk eman zizkion lepoan agur legez, baina andreak masaje bat zela pentsatu zuen, eta erdi intzirika esan zion ahapetik... | 151 |
| iragartzen anuntziatu | Alderantzizko piramide baten forma osatzen zuten irudiaren azpiko hizkiek, nortzuk parte hartuko zuten iragartzen zutenak. | 168 |
| iragazki filtroa | Lainoaren iragazkiek indarra kendu zioten mezuaren gurasokeriari. | 12 |
| irain ofentsa, desohorea | Zenbaitetan irainek eta biraoek birbiltzen zituzten elikagai iraungiak saldu izanaren salaketak. | 53 |
| iratzarri esnatu, izartu | —Mentxu, Mentxu, iratzarri lehenbailehen, Santos atxilotu dute, logelatik altxatu berri dute... | 32 |
| irri karkaila barre algara, barre zantzoa | Irri karkaila maltzurra egin zuen Luigik. | 171 |
| isiotu piztu, su eman | Milizkatu berriko zigarroa ezpainetaratu eta isiotu osteko zurrupaldia arnas-hartze zaratatsuaz lagundu zuen. | 6 |
| isla adierazlea, erreflejoa | Lepauztaiak atzamarrez tinkatuz ekin zion eta oinaze-isei erreparaturik sorbaldatik behera poliki haztatuz joan zen gerrigainetaraino. | 25 |
| itaundu galdetu | —Zer duzu? — itaundu zuen Mentxuk. | 163 |
| itxaron egik itxaron ezak (hika, bizk) | —Hurrengoan, Joselu, txalupan bertan itxaron egik —batelean makurtu zen Mentxu, mutikoak arraunei eutsi bitartean—, ez hazatela ikus agerian... | 10 |
| jadetsi lortu | Zakuto barruko tresneria ateratzean sortutako zaratak jadetsi zuen aspaldi luzean Joseluren begian Mentxu zegoen tokira zuzentzea. | 129 |
| jarkera jarrera desatsegina, desplantea | Bestearen jarkerari ispilu legezkoa egin zion Santosek eta elkarren aurpegiak zentimetro gutxitara gelditu ziren. | 166 |
| jopuntu helmuga | ...Joseluren begiek lurreko baldosak zituzten jopuntu ... | 106 |
| joran irrika, gogo bizia | Zigarro bat erretzeko jorana sentitu zuen baina jendaurrean halakorik ez egiteko aztura, usadioetan aski sakon finkatutakoa, nagusitu egin zitzaion... | 98 |



| | | |
|--|---|-----|
| jukutria jokaldi makurra, azpijokoz | Gutxi daukat azaltzeko. Nazkatu naiz zuen jukutria eta jolasez. | 168 |
| kablegrama telegrama antzekoa baina kablez | Bidali diot kablegrama Fonsecari, nire urtemuga uztailaren 2an dela esanez. | 162 |
| kai portua | Kairako bidean gehienez sereno birekin topo egingo zuela kalkulatu zuen... | 4 |
| kalaka berriketa, bereziki gogaikarria | Ospakizun otorduaren osteko zurrunaldi berbatsuan zeuden laurak, normalean baino kalaka animatuagoan... | 157 |
| karel itsasontzien goiko ertza | ...aski izan zuen helizeei kontrako indar apur bate matea ontziaren karela lehorretik metro eskasean hurbiltzeko. | 9 |
| karilioi kanpai zarata sortzeko tramanku | Nerbioi eta Abra inguruko kanpandorreak eta karilioiak joka hasi ziren. | 13 |
| karranpa gihar uzkurdura mingarria | Denbora berean, indarrak ahitzen ari zitzaizkiola konturatu zen, bernetan karranpak sentituta. | 191 |
| kartazal gutun azala | Paper bat eta kartazal bat ezarri zituen mahai gainean ezker-eskuma... | 167 |
| kikara taza | Kafea kikaretan ipini, eta bitsaderaz plateretu zituen arrautzak eta enparauak Mentxuk. | 37 |
| kiribilkatu biribilean jartzea | Bufanda kiribilkatzea izan zuen ispilu aurreko azken egitekoa. | 9 |
| kisketa zarratzeko-ixteko gailua | Ostatuko atea gau osoan kisketa eman barik zegoela eta edozein ordutan helduta ere sartu ahal izango zutela. | 27 |
| kliskatu begiak keinu arinez itxi-ireki | Urruntzen ari zen Luigirenganantz kliskatu zion begia Mentxuk Rafari. | 174 |
| konkortu okertua, bulto bat eginda | Gogortuak zeukan hegalak eta normalean baino konkortuago bizkarra. | 25 |
| koska altakurra, maila | Minutu batzuk egin zituen espaloiaz bestaldeko etxe-atariko koska belunean jesarrita. | 9 |
| kraska apurtze hots idorra | Mentxuren lan-mahaira hurreratu zen Joselu, eta lurrera jausten laga zuen beirazko ontzi txiki bat. Kraskaren osteko isiluneaz baliatu zen mutikoa. | 210 |
| krotxet boxeoko kolpe mota | Txandaka irudikatzen zituen balizko arerioaren gorputz atalak zaku zigortuan, hara hor eskumako masailean krotxeta , to oraingoan ezker gantxoa... | 59 |
| kulero braga | Hurrengoan erosiezakidazu kulero batzuk Lopezen mertzerian, gura baduzu –eta algara egin zuten biek. | 26 |
| kuluxka loaldi arina | Siesta garaiko lasaitasunak baretuta zeuden ostatuko korridore-eskailerak. Ohikoa zuen ordu laurdeneko kuluxkaren lorratzak uxatu ezinik jaitsi zen... | 146 |
| laga utzi | ...Fonseca eskumako eskua goratuta hurreratzen ari zitzaiola ikusita. Mentxuk edan barik lagatako burbon hondarra eztarriratu zuen. | 96 |
| laket atsegin | Izugarri laket zitzaion Antoniaren begiramena. | 16 |
| lakio piztiak harrapatzeko den soka | Beraz, amore emango dute guri lakioa estutzen digutelakoan. | 135 |
| lantxurda lanbroa | Lainoa zuen iluntasunetan traketsena, lantxurdak apaldu egiten zion bizitasuna. | 6 |
| lantzean behin noizbehinka, | Maite zuen lantzean behin «arrain finetan finena» iragartzen zuten orroen edo emakumeen tarteko berba lotsagalduen iskanbiletan galtzea. | 52 |
| lardaskatu aldrebestu, gaizki ipini | Beldurra... horrelako marka bikaina lardaskatzeko arriskua, ba ei zekian ez zuela Ezard Charles garaituko. | 6 |
| larregi gehiegi | Gogor plantei eusten saiatzen ari zen gaztea, emozioak ez ziezaion larregi gainez egin. | 61 |



| | | |
|---|--|-----|
| laxatu lasaitua, aske sentitzea | Arnas-sakontze bik laxatua zioten barrena, bareatuago gogoia. | 30 |
| legetxe bezalaxe | Urtebete lehenago aitari zoro deitzearen jolasa egin izan balio, nekez ziratekeen orain legetxe arraunean suabe eta baketan. | 5 |
| lepauztai klabikula, sorbaldako hezurra | Lepauztaiak atzamarrez tinkatuz ekin zion eta oinaze-islelari erreparaturik sorbaldatik behera poliki haztatuz joan zen gerrigainetaraino. | 25 |
| litxarkeriak txibizkeriak,gozoki askotarikoak | ...eta saski erraldoi batean gaseosak eta litxarkeriak saltzen zituen andre bat izaten zen bertan... | 85 |
| loki belarrien aurreko gunea | Mila esker, seguru ederto dauzkadala –murmurikatu zion belarrian, eta musua eman zion lokian –. | 147 |
| loriatu goraldu, zerutiar bihurtu | ...hizlari ele-eder batek herriko giro mistikoa loriatu behar zuela. | 87 |
| lorratz aztarna, arrastoa | Siesta garaiko lasaitasunak baretuta zeuden ostatuko korridore-eskailerak. Ohikoa zuen ordu laurdeneko kuluxkaren lorratzak uxatu ezinik jaitsi zen... | 146 |
| marrantatxo eztarria urratuta, ahotsa latz | —Lehorrean eta siku –izan zen jasotako erantzuna, Santosena ematen zuen ahots zirtzilatu batez–, ondo-ondoan aditzen ditut haren marrantatxo alaiak. | 192 |
| matrail masaila | Adostasunezko agurraz telefonoa gakoan eskegi ostean Eusebia bazetorren matrailetako azken ur-bustidurak eskuaren atzealdeaz sikatuz. | 150 |
| miatu arakatu, aztertu | Goiko armairutxo batean zegoen botila patxada handiz miazeari ekin zion Mentxuk. | 14 |
| mikatz zapora desatsegina, mingotsa | —Lehen esan dizudan bezala (...) –kafearen mikatzak tonu indartsuagoan berba egiteko adorea eman zion–. | 37 |
| moila portuko eraikuntza | Burdina zirinez gorritutako moilak pasatuta, labe garaietako itzal erraldoiek iragarri zieten Sestaora heltzekotan zirela. | 200 |
| moltso multzoa (?) | Inoizko moltso tristenetakoa bildu zitzaion kolkora... | 148 |
| muzin purrustada, kexa | Aurreko muzinaren ondoren, “Ez naiz tragotan etorri” errepikatu zuen Mentxuk bere kolkorako, barretxo bat egin zuen. | 11 |
| nardagarri nazkagarria, antojuzkoa | Gustukoak zituen bere etxearen kontenplaziozko patxadaldi labur haiek, atsegin zuen jabegoarekiko harrotasun nardagarria . | 9 |
| narru larrua, azala | Kaskezurrean emandako lehen musuak gako metaliko baten kontra egin zuen, gako saiatu zen ile azpiko narruaren epeltasuna ezpainetan nabaritu arte. | 69 |
| narruzko hedeak larruzko zinta, uhala | ...alkondara hutsez jantzita zegoen eta pistola eroatearren erabilitako narruzko hedeak antzematen zitzaizkion besape-sorbaldetan. | 90 |
| nasaia barea, irekia | Negar ezti nasaiak isuri zituen Eusebiak, poltsotik eskuratutako musuzapi zuriaz txukatu zituenak. | 148 |
| neorrealismo mugimendu artistikoa | ...eta hainbeste maite zituen film neorrealisten kontura; ahal zuen guztietan ekartzen zituen film italiarrok bere kargupeko zinemetara. | 56 |
| nozitu jasan | ...erreportaia luze bi, bata delinkuentziak Ingalaterran izandako gorakada demasiari buruz eta bestea Frantziako turismoak nozitzen zuen krisia zela eta. | 20 |
| nozitu pairatu, jasan | Artikulazioetan aspalditik nozitutako oinazeek gutxieneko beste hamarretan zamaten zioten berrogeita hamarrekota adina. | 24 |
| ogerleko 5 pezetako txanpona | —Barkatu tematzea, baina zelan ordaindu duzu hori? — Ogerleko bakar bat ere ez zait kostatu. | 161 |
| oinaze mina, pena | Esan zidan Antoniak oinaze berriak dituzula bizkarraren zabalean. | 25 |
| omendua omenaldia jasotzen duena | Omendua ia harri bihurtuta zegoenez, Mentxu zutitu eta biak behar legez soineratzen lagundu zion. | 160 |
| oratu heldu, lotu | Estuan hurreratu eta ukondotik oratu zion Luigik. Burua makurtuta egin zion ahapetik. | 58 |



| | | |
|---|---|-----|
| oroitarri monumentua | Irratian entzun nuen haren oroitarrirako antolatu zuten diru-bilketa porrota izan dela –izan zen norgehiagoka trufariari Mentxuk egin zion lehen ekarpena. | 55 |
| orro garrasia, oihu latza | Jendarteko orroak eta eskuzartak ez zituen lehen bezain garbi aditzen. | 196 |
| ospel ilunbetsua, hotza | ...beti gerizpetan egoten zen eta txoko ospel hura izugarri atsegina izaten zen ordukoa bezalako egun eguzkitsuetan. | 147 |
| ostendu ezkutatu, gorde | Beste ordu batzuek ostendu gura lukeen unea hurreratzen ari zela konturatu zen Mentxu... | 93 |
| osterantzeko gainerakoak, besteak | ... osterantzeko guztiei "nire senarra" azpimarratu ohi zien ahal zuen guztietan (...) herrian sor zitzakeen esamesak itotzeko. | 14 |
| osteratxo paseoa, ibilalditxoa | Osteratxoa egiteko ohitura zuen afaldu aurretik. | 27 |
| otu bururatu | ...sermoilari hutsa sentitzen zuen bere burua, baina ez zitzaion besterik otutzen ... | 65 |
| otzara otarrea, saskia | Bidaide gehienek baserritarrak ematen zuten, azokatik bueltan. Otzarra handiak zeroatzaten haietako askok, eta jesarrita zeudenak behintzat lanak zituzten hain | 101 |
| pararazi jarrarazi, ipinarazi | Jangelako arasan zegoen ispilu handiaren aurrean pararazi zuen zeukan piura mirets zezan. | 160 |
| pausokera ibiltzeko era | Normalean baino disimulu txikiagoko pausokera okerraz zihoan Santos. | 144 |
| petril ertzatza | Plazara heldutakoan asebeteko ur-saioa egin zuen iturrian, eta bertako petrilean atsedean hartuta erreparasatu zituen eman beharreko hurrengo pausoak. | 102 |
| pitzatu arrakaldu, zartatu | Betondo bat ubeltzen hasia ikusi zion Mentxuk, eta beheko ezpaina apur bat pitzatuta . | 202 |
| porrokatu saiatua, amorratua | Handik aurrera jardun porrokatuan tematu zitzaion Mentxuri botikadenda propioa zabaltzeko eta zabaltzeko. | 46 |
| pot musu | Pot emateko gogoak zigarroa lurreko baldosetara jausten uztera behartu zuen. Kaskezurrean emandako lehen musuak gako metaliko baten kontra egin zuen... | 70 |
| printza izpia | ...uhin txikien printza kolore aldagarriek Eusebiari agindutako ukenduaren tamainako lasaigarria eragiten zioten. | 27 |
| pulpitu mintzalekua elizetan | Txopitea artzapezak pulpitutik espreski sermoia egin zuen kristauak galarazita zutela zentsurak 4R sailkatutako film hura ikustera joatea. | 86 |
| sama lepoa | Santosek ez zuen Joseluren burua ikusten, oraindik ere sama azpiko magalean gordea zegoen eta. | 72 |
| sargori bero itogarria, sapa | ...motoran zeharkatu zuen Joseluk erroia, eta ontziak txopa estalia zuela esker, sargori osteko zaparrada trinkoak ez zuen zeharo blaitu. | 143 |
| sarraila ireki-ixteko mekanismoa | ...eten zuen Mentxuk, agian tonu zakarregiaz, Fonsecak sarrailako euslekuari eltzen zion unean. | 112 |
| sereno gauzain | Kairako bidean gehienez sereno birekin topo egingo zuela kalkulatu zuen... | 9 |
| setatsu temati | ...baina atzamarrez egun erdiko bizar lakarra laztanduta eskumara begiratzen zuen tarteka, ez ardurati eta setatsu . | 75 |
| sona fama, ospea | ...kontrako aldetik kairantz abiatu zen, bai baitzekien beste serenoa, Totorika, sona handiko edatunetakoa zela herrian... | 10 |
| soraio axolagabe bezala, nagiki | Patataren alde! –albo bietara soraio begiratu zuen besteen erreakzioaren zain. | 141 |
| sos txanpona | Sos batzuen truke ez dizu arazorik ipiniko. | 163 |
| tentetu arteztu, zuzen ipini | Zure nebaren gutuna jaso berri dute, Madrildik (...) –bizkarrezurra tentetu zuen Mentxuren atzamarrek sortutako minberagatik. | 0 |



| | | |
|---|--|-----|
| tentu juizioa, zentzua, temperamentua | Lotsatuta bezala eten zuen esan beharrekoa, ez ote zioten belarrek tentua larregi baretu. | 17 |
| tinkatu estutu, finkatu | Lepa-uztaiak atzamarrez tinkatuz ekin zion eta oinaze-islei erreparaturik sorbaldatik behera poliki haztatuz joan zen gerrigainetaraino. | 25 |
| titare josteko babes ontzitxoa | Andre biek jostun lanabesak zituzten eskuartean, artaziak, hari-jostorrazak eta ditareak erpurueta. | 148 |
| toxa tabakorako zorrotxoa | Tabako xeherako erabiltzen zuen narruzko toxa zabal-zabalean zeukan mahai gainean... | 63 |
| trufa egin burla edo iseka egin | Egunkarietan ez zuen Algortako hilketaz ezer aurkitu, eta bere buruaz trufa egin zuen halakorik espero izateagatik. | 20 |
| tupustean bat-batean | ...gortinak tupustean zabaldua, burua bertara hurbil zezan gonbidatzearen eskaini zion besoa. | 160 |
| txabusina bata | Normalean baino segundo bat gehiago behar izan zuen jaiki eta bazihoala, bazihoala murmurikatuz txabusinaren bila itsuan hasteko... | 32 |
| txaplata enplastua | Lehen bezeroak migrañaren kontrako txaplata eskatu zion... | 76 |
| txatxu txoriburua, ergela | «Bai, oso garbi», erantzun zuen egoerara egokitu ezinezko tonuaz eta hasieran legez bostekoa eskaintzeko ideia txatxua besterik ez zitzaion bururatu. | 156 |
| txibista lazioa, begizta | Txibista deigarri batez hornitutako fardela eman zion eta eskerrik asko lotsatu batekin batera jaso zuen. | 131 |
| txikota itsasontzia lotzeko soka | "Bazen garaia" izan zuten Santosen agurra, eskuma txikota zain luzatzen zuen artean. | 11 |
| txikota soka puska, sokatzarra | ...garraio-lanak egiten zituen txalupa ez zen arraunez edo motorrez aurreratzen, mutur bitako txikota luze baten atoian baino. | 157 |
| txingetari eragin kisketa mugitu | ...egoeraren ganorabakoak bultzatuta atearen txingetari eragin zion eta ohartu zen giltzatu barik zegoela. | 90 |
| txopa itsasontziaren atzeko aldea | Txopatik hurreratu zitzaion batela Bermejo II atoiotziari. | 11 |
| ugazaba jabea, nagusia | Zer, Portabella ugazabak ez din algararik egiten uzten? | 93 |
| umiliagarri lotsetzen duena | ...aitak masailean eragindako esku-zarata umiliagarriaren azpitik eta Zurrutas-ek distantziatik egindako begiraden gainetik. | 168 |
| upa kupela, barrika | ...eta upaz inguratutako mostradore aurrean ziren gizonen artetik bere adin bereko bi gazte ikusita erabaki zuen barnera egitea. | 88 |
| upategi sotoa, upeltegia, bodega | Joseluk atzamarrei begiratzen zien, lotsa itxuraz, eta lantzean behin upategiei eta sabitik eskegitako zahagiei ematen zien begi. | 72 |
| urtemuga urtebetetzea | —Pentsatu dut ederto legokeela zer edo zer berezia antolatzea Joseluren urtemugarako . | 17 |
| usadio ohitura | ...laborategian igarotako arratsaldeek zamatzen zioten burua arintzearen baino, usadioari zegokion gabana jantzi eta kalera irten beharra zen hura. | 27 |
| usna sumatzea | Lainoaz haratagoko usnatze saioan ari zen. | 8 |
| uxatu haizatu, aienatu, aldenarazi | ...ohikoa zuen ordu laurdeneko kuluxkaren lorratzak uxatu ezinik jaitsi zen Mentxu sukaldera. | 146 |
| xehe argi-argi, detailez | ...eskuhorrietan azaltzen zen testua, letra xehegiz gainera. | 62 |
| xuxurla marmarra, isilka hitz egitea | ...halako batean isildu egin ziren, eta xuxurla gabeziak sortutako hutsunean bestelako soinuak entzun ziren... | 149 |
| -z beste egin paso egin, ez balego bezala | Ezezagunaren presentziaz beste eginez ekin zion Mentxuk enkontruari, eta haren aurpegira begiradarik zuzendu ez zuen legez, haren berbek ere... | 14 |



| | | |
|--|---|-----|
| zaflada kolpea, zartakoa | Kezkarako arrazoirik ez zegoela eta prestatzailea morroi jatorra zela esanez moduko zaflada jo zion Santosek semeari lepaostean... | 168 |
| zakarkeria leuntasunik gabeko jarrera | Susmoa dut aitari zakarkeriak apalduz doazkiola urteen poderioz. | 25 |
| zamalkatu zaldi gainean ibili | ...Joseluk kontatuko dizu honanzkoan zer trakeskeria egin behar izan ditudan gona hauekin burdina horiek zamalkatzeko –motoaren giltzak eman zizkion–. | 145 |
| zamatu kargatu, gehitu | Artikulazioetan aspalditik nozitutako oinazeek gutxieneko beste hamarretan zamatzen zioten berrogeita hamarreko adina. | 24 |
| zanbuluka alderoka, alderik aldera, kulunka | Zanbuluka hurreratu zen ea nor zen ikusteko, eta beneziarrak alboratuta Eusebiaren aurpegi musugorri eta biribila ikusi zuen. | 180 |
| zantzoka barre algaraka, pozez oihuka | Zantzoka gogoratu zituzten aurreko urtean filmaren emanaldietan bizi izandakoak. | 86 |
| zapuztuta defraudatuta, ilusio gabe | Mentxu apur bat zapuztuta zegoen Fonsecarengandik espero zuen sintzeritatearen ondorioz. Ez zion lagunari galdera itzultzeko abagunerik eman. | 95 |
| zentsore zentsuratzen duen pertsona | Espero dut zentsoreak ez direla hasiko jaiotegunaren benetako dataren bila. | 162 |
| zer popa, ipurdia | Bidaide gehienek baserritarrak ematen zuten, azokatik bueltan. (...) jesarrita zeudenek (...) lanak zituzten hain zer handiak jesarlekuen mugetara ekartzen. | 101 |
| zertzelada xehetasuna, detailea | Linternaren laguntzaz azaldu zizkion diafragmaren zabalerari eta esposizio denborari buruzko zertzeladak . | 92 |
| zipriztindu txipliztadaz bete | Eztul-erauntsiak mahaiaren gaina eta inguruak zipriztindu zituen. | 143 |
| zirrikitu bitarte estua | Burko akoltxatuaren zirrikituetatik ezpainak gailentzen zitzaizkion nabarmen... | 164 |
| zirti-zarta kolpe lasterren onomatopeia | — Gehienetan pentsatzen dut zirti-zarta menderatuko ditudala denak... | 157 |
| zirtzilatu apurtua, triskatua, zati-zati egina | —Lehorrean eta siku –izan zen jasotako erantzuna, Santosena ematen zuen ahots zirtzilatu batez–, ondo-ondoan aditzen ditut haren marrantatxo alaiak. | 192 |
| zizpuru hasperena | Toalla sorbalda gaintetik biribilkatu zionean zizpuru egin zuen Joseluk... | 166 |
| zurrupatu xurgatu, hurrupatu | Hiru egun lehenago Azken Portun izandako elkarraldia zen planifikatutako pentsamenduak zurrupatzen zizkiona. | 24 |
| zuztar sustraia edo zurtoina | Neke trazak zituen behargin itxurako gizona zetorren gidari eta puru baten zuztarra hortzetatik kendu barik agurtu zituen... | 163 |